**UDALBATZARI / AL AYUNTAMIENTO PLENO**

**ZARATA ETA BIBRAZIOEK SORTUTAKO KUTSADURA AKUSTIKOARI AURRE EGITEKO UDALAREN JOKABIDEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA-REN HASIERA BATEN ONARTZEA.**

**APROBACIÓN INICIAL DE LA ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA ACTUACIÓN MUNICIPAL FRENTE A LA CONTAMINACIÓN ACÚSTICA POR RUIDOS Y VIBRACIONES**

Donostiako Udalak, kutsadura akustikoaren eremuan zarata eta bibrazioen ondoriozko kutsadura akustikoaren aurrean udal jarduketa arautzen duen ordenantza onartu zuen 2000ko urriaren 17an, ingurumen arloko araudiaren ikuspuntutik. Ordenantza horrek bi aldaketa izan ditu (2006ko irailaren 26ko osoko bilkuraren akordioa eta 2010eko urriaren 1eko osoko bilkuraren erabakia), zaratari buruzko 37/2003 Legea indarrean sartzean, doikuntza txikiak eginez eta aipatutako legera egokitzeko.

El Ayuntamiento de San Sebastián aprobó, con fecha 17 de octubre de 2000 la Ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones actuando en el ámbito de la contaminación acústica desde el punto de vista de la normativa medioambiental. Dicha ordenanza ha sido objeto de dos modificaciones (acuerdo plenario de 26 de setiembre de 2006, y acuerdo plenario de 1 de octubre de 2010) con motivo de la entrada en vigor de la ley 37/2003 del ruido y de sus reglamentos de desarrollo, haciendo pequeños ajustes y adaptaciones a la mencionada ley.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko ekainaren 25eko 2002/49/EE Zuzentarauak, ingurumen-zarataren ebaluazioari buruzkoak, honako hau garatu zuen: Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea; 1513/2005 Errege Dekretua, abenduaren 16koa, ingurumen-zarata ebaluatzeari eta kudeatzeari dagokionez garatzen duena, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zonakatze akustikoari, kalitate-helburuei eta soinu-igorpenei dagokienez garatzen duena. Arau-esparru hori Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan osatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuarekin.

La publicación de la Directiva 2002/49/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 25 de junio de 2002, sobre evaluación del ruido ambiental, dio lugar al desarrollo de la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido; del Real Decreto 1513/2005, de 16 de diciembre, que la desarrolla en lo referente a la evaluación y gestión del ruido ambiental; y del Real Decreto 1367/2007, de 19 de octubre, que la desarrolla en lo referente a zonificación acústica, objetivos de calidad y emisiones acústicas. Este marco normativo se completa en el ámbito de la Comunidad Autónoma con el Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2000. urteko Ordenantza horren balioespena positiboa da, izan ere, hastapenetik eta garatu den urteetan zehar, zarataren aurkako beharrezkoak diren neurriak kontrolatu eta aplikatzeko tresna egokia izan da.

La valoración de dicha Ordenanza del año 2000 es positiva, ya que ha sido desde sus inicios y durante sus años de desarrollo, una herramienta adecuada para el control y aplicación de las medidas necesarias

10740n XVII

contra el ruido..

Bertan xedatutako funtsezko alderdiak mantentzearen kalterik gabe, lehen adierazitako arauzko aldaketek, gainera berrikuntza tekniko garrantzitsuak inplikatzen dituztenak, eta behin aipatu arauek egunerokotasuneko errealitatean duten eragina ikusteko nahiko denbora igarota, aurrekoa ordeztuko duen testu berri bat eratzea aholkatzen dute.

Sin perjuicio de mantener en sus aspectos esenciales lo dispuesto en la misma, los cambios normativos antes señalados, que implican además novedades técnicas importantes, y una vez transcurrido suficiente tiempo como para ver las implicaciones de las citadas normas en la realidad cotidiana, aconsejan la elaboración de un nuevo texto que sustituya al anterior.

Horregatik, udal-arloekin lankidetzan, zarata eta dardarengatiko kutsadura akustikoaren aurrean udal jarduera arautzen duen ordenantza-proiektu bat egin da, eta hori administrazio-espedienteari erantsi zaio.

Por ello, en colaboración con diversas áreas municipales, se ha elaborado un proyecto de Ordenanza reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones, que se adjunta al expediente administrativo.

Proiektua Eusko Jaurlaritzara bidali zen Ingurumen Ebaluazio Estrategiko Sinplifikaturako, eta urtarrilaren 18an txostena jaso zen, Ingurumen Administrazioko zuzendariaren 2019ko urtarrilaren 15eko ebazpenaren bidez espedientea artxibatu egin dela adieraziz.

El proyecto ha sido enviado a Gobierno Vasco para Evaluación Ambiental Estratégica Simplificada y con fecha 18 de enero se recibió informe indicando que, por resolución de 15 de enero del 2019 del director de Administración Ambiental, se archiva el expediente.

Otsailaren 13tik otsailaren 27ra bitartean hirugarren kontsulta publikoa egin zen Ordenantza honi buruz eta kontsulta publiko honetan aurkeztutako ekarpenei buruzko txostena espedientean jasota dago.

Desde el 13 de febrero al 27 de febrero se realizó la tercera consulta pública previa en relación a este Ordenanza y el resumen sobre las aportaciones presentadas durante esta consulta pública está incluido en el expediente.

Era berean, Finantza Arloko Ordenantzaren iraunkortasun ekonomikoaren balorazioa egin da eta espedientean sartu da Diruzaintzaren eta Finantza Zuzendariaren aldeko txostena.

Asimismo, se ha realizado valoración de la sostenibilidad económica de la Ordenanza por parte del Area Financiera y se incluye en el expediente el informe favorable del Tesorero-Director Financiero.

Bestalde, martxoaren 15ean Euskara Zerbitzuaren txostena jaso da, eta martxoaren 29an Hirigintza Zuzendaritza. Bi arlo horiek egindako ekarpenak onartu nahi den testuan sartu dira.

Por otro lado con fecha 15 de marzo se ha recibido el informe del Servicio de Euskera y con fecha 29 de marzo el de la Dirección de Urbanismo. Las aportaciones realizadas por estas dos áreas han sido incorporadas al texto que se propone a

aprobación.

Generoaren eraginari dagokionez, adierazi behar da ordenantzak ez duela garrantzirik generoaren ikuspuntutik, eta Genero-eraginaren aurretiko Ebaluazioa egitetik salbuetsita geratzen dela.

En cuanto a impacto de género, hay que indicar que la ordenanza carece de relevancia desde el punto de vista de género y queda exenta de la realización de una Evaluación Previa de Impacto de Género.

Gainera, adierazten da ordenantza Ingurumen Sektorialeko kontseilukideen artean jorratu zela.

Asimismo, se dio cuenta de la ordenanza a los miembros del Consejo Sectorial de Medio Ambiente.

Aurretiazko hirugarren kontsulta publikoa iraungi ondoren, laugarren kontsulta publiko bat egin da, 2020ko irailaren 28tik urriaren 12ra. Ekarpenak aurreko kontsultetako ekarpenen antzekoak izan dira, eta, beraz, onartzeko proposatzen den testua ez da aldatu.

Tras la caducidad de la tercera consulta pública previa se ha procedido a realizar una cuarta consulta pública, del 28 de septiembre al 12 de octubre del 2020. Las aportaciones han sido similares a las de las consultas previas anteriores, por lo que el texto que se propone a aprobación no se ha variado. Se adjunta resumen de aportaciones.

Hori horrela, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985) 49. artikuluan xedatutakorekin bat, hasierako onarpena eman behar zaio. Horretarako, honako akordio hau proposatzen zaio Udalbatzari:

Procede en consecuencia y de conformidad con lo establecido en el Artículo 49 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las bases de régimen local, su aprobación inicial, por lo que se propone al Ayuntamiento Pleno, el siguiente

## A K O R D I O A

1. “Zarata eta bibrazioek sortutako kutsadura akustikoari aurre egiteko udalaren jokabidea arautzen duen ordenantza-ren ” hasiera batean onartzea.

2. Espedientea informazio publikoko eta interesdunen entzunaldiko izapidean jartzea hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko.

## A C U E R D O

1º.- Aprobar inicialmente la “Ordenanza municipal reguladora de la actuación municipal frente a la contaminación acústica por ruidos y vibraciones”.

2º.- Someter el expediente a información pública y audiencia a los interesados por el plazo de treinta días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

3. Ez bada erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten, akordioa behin betiko onartuta dagoela ulertuko da.

3º.- En el caso de que no se presentase ninguna reclamación o sugerencia se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo.

Donostian, 2021eko martxoaren 9ean

INGURUMEN OSASUNAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN ZERBITZUAREN BURUA
LA JEFA DE SERVICIO DE SALUD AMBIENTAL Y SOSTENIBILIDAD

Ana Juaristi Arrieta

INGURUMENEKO ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE MEDIO AMBIENTE

Josu Benaito Villagarcía

EKOLOGIAKO, OSASUN PUBLIKOKO, GARAPEN EKONOMIKOKO ETA ENPLEGUKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
LA CONCEJALA DELEGADA DE IMPUSLO ECONÓMICO Y EMPLEO, ECOLOGÍA Y SALUD PÚBLICA

María Soledad Gamendia Beloqui